



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko azaroaren 8ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, azaroaren zortzian, zazpitan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko azaroaren 3a

Afitzatze eguna : 2022ko azaroaren 3a

4. ERABAKIA: FUNTZIO, ARDURA, GAIATSUN ETA ESPERIENTZIA PROFESIONALARI LOTURIKO INDEMNIZAZIO ERREGIMEN BATEN EZARTZEA (RIFSEEP)

(4.5 nomenklatura: Indemnizazio erregimena)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio herriko langileentzako indemnizazio erregimen baten ezartzea. 2016ko urtarrilaren 1etik, funtzio, ardura, gaitasun, esperientzia eta engaiamendu profesionalak kontuan hartzen dituen indemnizazio erregimen berria (RIFSEEP) indarrean sartu zen Frantziako estatuko funtzio publikoan. Hori da Lurralde Funtzio Publikorako indemnizazio erregimenen erreferentzia.

Oroitarazten digu lurralde erakundeetako funtzionarioek antzeko funtzioak betetzen dituzten frantses estatuko funtzionarioen ordain sari eta prima berak ukan ditzaketela. Baliokidetzak dekretu bidez zehaztuak dira.

Hautazko abantaila denez geroztik, Frantziako legeak erakundeetako organo erabakitzaileei ematen die indemnizazio erregimen baten ezartzeko eta horren gauzatze balditzen finkatzeko eskumena, beti ere Frantziako funtzio publikoan indarrean diren arauen mugetan eta parekidetasun printzipioa betez.

Herri Biltzarrari dagokio honakoei buruz erabakitzea:

- langile onuradunak,
- tokiko erakundean emanen diren primen izatea,
- prima bakoitzaren zenbatekoa, Frantziako estatu funtzionarioentzat finkatu mugetan eta eguneratze baldintzetan; Frantziako estatuko funtzionarioentzat finkatu diren primen zenbatekoak markatzen du tokiko erakundeek eman dezaketenen muga goren,

- indemnizazio edo ordain sarien erregimenaren emateko irizpideak,
- sari eta primen ordainketaren maiztasuna.

Funtzio, ardura, gaitasun, esperientzia eta engaiamendu profesionalak kontuan hartzen dituen indemnizazio erregimen berria (RIFSEEP) honela osatua da:

- funtzio, ardura eta gaitasunei loturiko ordain saria (IFSE) ;
- urteroko ordain sari gehigarria, engaiamendu profesionala eta zerbitzua emateko manera (CIA) kontuan hartzen dituen, elkarrizketa profesionalean oinarriturik.

RIFSEEP-ak aitzinetik existitzen ziren beste ordain sari eta prima batzuk ordeztzen ditu, hala nola Misioen Egikaritze Indemnizazioa (IEM), Administrazio eta Teknikotasun Indemnizazioa (IAT) eta Lan Gehigarrientzako Indemnizazio Finkoa (IFTS).

Herriak gogoeta bat abiatu du langileen indemnizazio erregimena egokitzeko eta RIFSEEP-a indarrean ezartzeko, honako helburuak betetzeko xedearekin:

- lanpostu bakoitzaren maila kontuan hartzea, ardura eta gaitasun irizpideen arabera,
- langileen engaiamendua suspertzea.

1 – ONURADUNAK

Indarrean diren araudien arabera, Frantziako estatuko funtzionarioentzako ezarri den RIFSEEP erregimena honako lanbideentzat oinarri izan daiteke:

- Kargudunak
- Animatzaileak
- Administrazio laguntzaileak
- Teknikari laguntzaileak
- Animazio laguntzaileak
- ABLA

Primak eta ordain sariak:

- funtzionario titular eta ikastunei ematen ahalko zaizkie,
- lurralde funtzionarioen lanpostu antzekoak dituzten langileei, izan kontratu publiko mugatua nola mugagabea, baldin eta gutxienez 6 hilabete bete badituzte egiturari lanean, edo hastapeneko kontratuak gutxienez 6 hilabeteko iraupena baldin bada. Modu orokorrean, kontratupeko langileentzat, aitzinakotasuna kalkulatzeko langilearen kontratu guztiak hartzen dira kontuan, baldin eta kontratuen arteko etenaldiek ez badute 4 hilabete baino gehiago iraun.

2 - FUNTZIO, ARDURA ETA GAITASUNEI LOTURIKO INDEMNIZAZIOA (IFSE)

IFSE-k funtzioen betetzea baloratzeko xedea du eta indemnizazio erregimen berriaren ordain sari nagusia da.

Ordain sari horrek lanpostuaren irizpide profesionalak xeheki zehazten ditu, eta lanbide esperientzia ere kontuan hartzen du.

Primaren zati bakoitzarentzat oinarritzko zenbateko bat finkatua da, pertsona bakoitzaren arabera egokitu daitekeena baina Frantziako ministerioko ordenantzek finkatutako gain mugetaraino. Tokiko erakundeko langileei eman dakizkiekeen zenbatekoek ez dezakete gain muga hori gainditu.

Enplegu esparru bakoitzeko funtzio taldeak zehaztu behar dira honako irizpideen arabera:

- Kargudun, koordinazio, gidaritza edo diseinu funtzioak;
- funtzioen betetzeko beharrezkoak diren teknikotasuna, gaitasuna, esperientzia eta kualifikazioa;
- postuak lanbide ingurunearekiko dituen ardura bereziak edo esposizio maila.

Talde bakoitzari dagokio urtean gainditu ez daitekeen gehieneko indemnitzazio zenbateko bat.

Funtzio taldeak hierarkikoki sailkatuak dira: enplegu esparru bakoitzeko funtzio taldeen kopurua ordenantza bidez finkatua da.

3 - URTEKO ORDAIN SARI GEHIGARRIA (CIA)

Urtero, ordain sari gehigarria ematen ahalko zaie langileei, engaiamendu profesionala eta zerbitzua emateko manera kontuan hartzen dituen, elkarrizketa profesionalaren arabera.

Urteko ordain sari Gehigarria honako irizpideen arabera emanen da:

- Langileak erakundean duen engaiamendua
- Zerbitzu publikoaren sena
- Erreserba, diskrezioa eta sekretu profesionala
- Baliabide materialen errespetua
- Eskuragarritasuna
- Zerbitzuan egin ditzakeen proposamenak

Urteko ordain sari gehigarriak ez du RIFSEEP-aren gain mugaren %20 gainditu behar.

Langile bakoitzaren zenbatekoa, CIA-ren %0 eta 100 artean kokatuko dena, gorago zerrendatu irizpideen arabera emanen da.

Ordain saria ez da urtero automatikoki emanen.

4- ZENBATEKOAK

Ondorengo taulan agertzen diren zenbatekoak denbora osoko langile baten zenbateko gordinak dira.

Herriak kontratatzen dituen langile kopurua ikusirik, funtzio talde bakoitzarentzako zenbatekoak taulan agertzen den zenbateko handienaren eta 0 artean kokatuko dira:

Administrazio saila

- Lurralde kargudunak (A kategoria)

Taldea	Enpleguak	IFSE Urteko gain muga	CIA Urteko gain muga	Urteko zenbateko goren
1. taldea	Idazkari nagusia	5 000 €	1 250 €	6 250 €

- Lurralde administrazio laguntzaileak (C kategoria)

Taldea	Enpleguak	IFSE Urteko gain muga	CIA Urteko gain muga	Urteko zenbateko gorena
2. taldea	Gaitasun anitzeko harrera langileak	2 500 €	625 €	3 125 €

Teknika saila

- Teknikari laguntzaileak (C kategoria)

Taldea	Enpleguak	Urteko zenbateko gorena	CIA Urteko gain muga	Urteko zenbateko gorena
1. taldea	Gaitasun anitzeko langile teknikaria	3 500 €	875 €	4 375 €
2. taldea	Mantenu langilea	2 500 €	625 €	3 125 €

Animazio saila

- Lurralde animatzaileak (B kategoria)

Taldea	Enpleguak	Urteko zenbateko gorena	CIA Urteko gain muga	Urteko zenbateko gorena
3. taldea	Animatzailea	4 000 €	1 000 €	5 000 €

- Animazio laguntzailea (C kategoria)

Taldea	Enpleguak	IFSE - Urteko zenbateko gorena	CIA Urteko gain muga	Urteko zenbateko gorena
1. taldea	ABLA	3 500 €	875 €	4 375 €
2. taldea	Ludotekako langilea Animazio langilea	2 500 €	625 €	3 125 €

Gizarte saila

- ABLA (C kategoria)

Taldea	Enpleguak	Urteko zenbateko gorena	CIA Urteko gain muga	Urteko zenbateko gorena
1. taldea	ABLA	3 500 €	875 €	4 375 €

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 14
Balizko boz kopurua : 14
ALDE : 14
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko azaroaren 8an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/12/05ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/12/05ean.